Jubilazioak

Nafarroako Irakaskuntza Publikoa

steilas

www.steilas.eus

Jubilazioak
Nafarroako Irakaskuntza Publikoa

Araba

Manuel Iradier, 40 • 01005 Gasteiz
✆ 945 14 11 04 • araba@steilas.eus

UPV/EHU Arabako Campusa
Comandante Izarduy Kalea, 2 • 01006 Gasteiz
✆ 945 01 33 97 • steilas-araba@ehu.es

Bizkaia

José María Eskuza 1, 1. ezk • 48013 Bilbo
✆ 944 10 02 98 • bizkaia@steilas.eus

UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegi nagusia
Sarriena Auzoa z/g • 48940 Leioa
✆ 946 01 24 34 • steilas-bizkaia@ehu.eus

Gipuzkoa

Gaztela kalea 16-18, Behea • 20015 Donostia
✆ 943 46 60 00 • gipuzkoa@steilas.eus

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio Mª Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1 • 20018 Donostia
✆ 943 01 84 36 ✆ 943 01 82 81
steilas-gipuzkoa@ehu.eus

Nafarroa

Joakin Beuntza, 4-6 behea • 31014 Iruñea
✆ 948 21 23 55 • nafarroa@steilas.eus

www.steilas.eus

2026

Aurkibidea

1. Erretiroa eskatzeko urratsak 5
1.1. Adinagatiko ordu murrizketa 5
1.2. Betebeharrekoak eta erretiro motak 6
1.3. Gehieneko zenbatekoak 7
1.4. Gutxieneko zenbatekoak 7
1.5. Erretiro data komenigarriena 7
1.6. Zer gertatzen da hutsik geratzen den lanpostuarekin? 8
1.6.1. Ikasturtean zehar hartutako erretiroak 8
1.6.2. Ikasturtea bukatuta hartutako erretiroak 8
1.6.3. Erretiratuek betetzen zituzten egiturazko lanpoztuak 8
1.7. Pentsioaren zenbatekoaren simulagailua 8
1.8. PFEZaren atxikipenen kalkulua Nafarroan 9
1.9. Helbide interesgarriak 10
2. Klase pasiboak (MUFACE) 11
2.1. Erretiro arrunta 11
2.2. Borondatezko erretiro aurreratua 11
2.3. Adinagatiko nahitaezko erretiroa (65 urtetik gora) 12
2.4. Zerbitzu aktiboa luzatzea (70 urtera arte) 12
2.5. Ezintasunagatiko erretiroa 12
2.5.1. Partziala 12
2.5.2. Osoa / Totala 12
2.5.3. Erabatekoa / Absolutua 13
2.5.4. Ezintasun handia 13
3. Gizarte Segurantza 14
3.1. Erretiro arrunta 14
3.2. Borondatezko erretiro aurreratua 15
3.3. Borondatezko erretiro aurreratua klase pasiboetan sartzeagatik 17
3.4. Zerbitzu aktiboa 65 urtetik haratago luzatzea 17
4. Pentsioak edo kotizatutako aldiak gehitzen dituzten kasuak 18
4.1. Genero-arrakala murrizteko osagarria 18
4.2. Lanaldi partzialeko eta lanaldi osoko lanak parekatzea, kotizazio-aldiak zenbatzeko 18

4.3. 5 urtera arteko kotizazio-igoera, karrera profesionala eteteagatik, adingabea zaintzeko 19
4.4. Antzinako prestakuntza-praktikengatiko kotizazioa 19
4.5. Sortutako eta gozatu gabeko oporrei dagozkien kotizazioak 20
4.6. Frankismoko Emakumearen Gizarte Zerbitzua, Soldadutza eta Ordezko Gizarte Zerbitzua 20

5. Norberaren kanpoko arrazoiengatiko pentsioak 21
5.1. Alarguntasun-pentsioak 21
5.2. Zurztasun-pentsioa 21
5.3. Gurasoen aldeko pentsioak 22
5.4. Kotizatu gabekoen pentsioak eta nominak 23
5.5. Ezohiko pentsioa 23

6. Erretiro-pentsioak, lorpen bat eta gudu-zaldi bat 24

1. Erretiroa eskatzeko urratsak 2026

1.1. Adinagatiko ordu murrizketa

225/1998 Foru Dekretua (7.4 eta 22.9 artikuluak). Beti zuzeneko irakaskuntza-saioak (Hezkuntza itunaren 86/2018 Foru Agindua., irailaren 14koa eta 41/2025 Foru Agindua, maiatzaren 13koa, Ekitatean Aurrera Egiteko Itunarena).

Adinagatiko ordu murrizketak					
	HH		LH		DBH
Jardu-naldia	Jarraia (26 saio, 45'-koak)	Zatitua (23 saio, 50'-koak)	Jarraia (26 saio, 45'-koak)	Zatitua (23 saio, 50'-koak)	1 orduko saioak
>55	2 (IZeko 24 saio)	2 (IZeko 21 saio)	1 (IZeko 25 saio)	1 (IZeko 22 saio)	1 (IZeko 17 saio)
>56	3 (IZeko 23 saio)	3 (IZeko 20 saio)	2 (IZeko 24 saio)	2 (IZeko 21 saio)	2 (IZeko 16 saio)
>57	4 (IZeko 22 saio)	4 (IZeko 19 saio)	3 (IZeko 23 saio)	3 (IZeko 20 saio)	3 (IZeko 15 saio)
>58	6 (IZeko 20 saio)	6 (IZeko 17 saio)	6 (IZeko 20 saio)	6 (IZeko 17 saio)	6 (IZeko 12 saio)

Oharrak: Saio hauek lan pertsonalerako izango dira, ez beste zereginetarako. Errekreo eta zaintzarik ez da eginen (beharren arabera). Murrizketa erreala 6 ordukoa beharrean 4 ordukoa denean (58 urte baino gehiago) 6 orduetara iritsi arte falta diren 2 ordu horiei dagokien formakuntza instituzionala ez du egin beharko.

60 urtetik aurrera murrizketa-ordu horietan ez dira nahitaez zentroan egon beharko. Ikastetxeari egotzitako orduekin konpentsatuko dira. Murrizketa soilik aplikatuko zaie LET masiboan lanaldi osoko lanpostua hartu dutenei.

Murrizketa hau Orientazioan ere aplikatuko da baina ez Zuzendaritza taldeetan, ez Mintegi burutzatan, ez lanaldi murriztua dutenei, ezta ordezko interinoei ere, behin ikasturtea hasita.

Murrizketak ikasturte hasieratik aplikatuko zaizkie urteak abenduaren 31 baino lehen betetzen dituztenei. Beranduago betetzen badira, hurrengo urtean gauzatuko dira. 65 urterekin ez da murrizketa aplikatuko, arik eta langileak ez badu pentsioaren %100 jasotzeko lan tarterik.

1.2. Betebeharrekoak eta erretiro motak

Klase Pasiboak (MUFACE)				
	Ohikoa	Borondatezkoa	Nahitaezkoa	Ezintasunagatikoa
Baldintzak	1. 65 urte + 38 urte eta 3 hilabete kotizatuta edo 2. 66 urte eta 10 hilabete + 38 urte eta 3 hilabete kotizatuta.	60 urte + gutxienez 30 kotizatuta.	+ 65 urte.	Lan egiteko gaitasuna murriztu edo deuseztatzen duen eritasuna edo istripua.
Hileko zenbatekoa	Kotizatutako urteen eta lan egin den kidegoaren arabera (ikusi 14. orrialdeko taula).			
	Hilabete osoa kobratzen da, erretiroa hartzen duzun eguna edozein dela ere.			

Gizarte Segurantza		
	Ohikoa	Borondatezkoa
Baldintzak	65 urte izan + 37 urte eta 9 hilabete kotizatuta, edo 66 urte eta 4 hilabete.	63 urte + 35 urte kotizatuta.
Hileko zenbatekoa	Lan egindako urteen eta kotizazio-oinarriaren arabera (ikusi 7. orrialdeko taula).	Penalizazioa, jubilazioa aurreratzen den hilabeteen arabera (ikus 8. orrialdeko taula).
	Soldata erretiro-egunera arte kobratzen da, eta erretiroaren hurrengo egunetik aurrera, berriz, pentsioa.	

Eskaera

1. **Lan-bizitza eskatu,** ohiko erretiroa edo borondatezko erretiroa har dezakegun egiaztatzeko Bizitza laboralaren kontsulta.
2. Hezkuntza Departamentuarekin harremanetan jarri **Kontrol administratiboaren** atalarekin ✆ **848 423 901,** aholku eman diezaguten.
3. Erretiroa Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiari erregistro orokor elektronikoaren bitartez (izena eta NANa, erretiroa hartzeko erregimena eta erretiro-data) eskatu behar da: borondatezko erretiroaren kasuan erretiroa hartu nahi dugun eguna baino gutxienez 3 hilabete lehenago, 6 hilabete lehenago adinagatiko nahitaezko erretiroaren kasuan, eta 65 urte bete baino 5 edo 6 hilabete lehenago gehieneko edo gutxieneko kotizazioa ez izateagatik 65 urte baino gehiagorekin erretiratu nahi izanez gero.
4. Funtzionarioen kasuan, **Administrazioak inprimaki bat bidaltzen digu**, galdetzeko erretiroa hartu nahi dugun erretiratzeko legezko adina betetzen dugun egunean edo ikasturtea amaitzean.
5. **Kontrol administratiboak "j" inprimakia bidaltzen du**, administrazioari emandako zerbitzuak jasotzen dituena. Gizarte Segurantzan kotizatu bada, nahiz eta MUFACEtik erretiratu MUFACE, kuotak elkarren artean zenbatzeko eskatu behar dugu formularioan klik eginez.
6. **Kontrol administratiboak erretiro-ebazpena ematen du,** eta bai interesdunari bai erakunde eskudunei, pentsioa ordain dezaten, bidaltzen die.

Pentsioa jasotzeko eskubidea ez dago baldintzatuta aurreko aldian kotizatu izanarekin; beraz, ez da nahitaezkoa zerbitzu aktiboan egotea erretiroa eskatzeko. Eszedentzian egon arren zein funtzionario-izaera galdu arren egin daiteke; ez da preskribatzen garaiz ez eskatzeagatik edo funtzionario-izaera galtzea dakarten hutsegite edo delituengatik.

steilas

1.3. Gehieneko zenbatekoak

Urtero, estatuko gobernuak gehieneko pentsioaren muga ezartzen du. 2026rako, muga (gordina) hau da: (3.359,60 € hilean, 14 ordainsaritan; hau da, 47.034,4 € urtean). Irakasleen Kidegoan, oinarri arautzailearen % 100 kobratuko da, baldin eta 35 urte kotizatu badira. Bigarren Hezkuntzako irakasleen kasuan, kotizatutako urte berberekin, hartzeko arautzailea gainditzen da. Horregatik, bigarren hezkuntzako kidegoan oinarri arautzailearen % 100 kobratzeko, nahikoa da 33 urte kotizatuta izatea gaur egun.

Aurrekontuen Legeak urtero zehazten du irakasleen kidego bakoitzari dagokion hartzeko erregulatzailea (kopuru gordinak) eta 2022tik aurrera KPIren bilakaerari lotzen zaio.

Hartzeko erregulatzailea 2026	Urtekoa	Hilabetekoa
A1 taldea. Bigarren Hezkuntza	52.697,91 €	3.764,13 €
A2 taldea. Maisu-maistrak eta LHko PT	41.473,91 €	2.962,42 €

1.4. Gutxieneko zenbatekoak

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra 8R.D.L. 16/2025, urriaren 30ekoa, 8.3 artikulua.

Zenbatekoa €-tan/urtean			
Pentsio mota	Bere ardurapeko ezkontidea	Ezkontiderik gabe: pertsona bakarreko unitate ekonomikoa	Bere ardurapeko ezkontiderik ez
Jubilazioa edo erretiroa	17.592,40 €	13.106,80 €	12.441,80 €
Alarguntasunarena	13.106,80 €		
Alarguntasun-familiakoa ez den senitartekoa, N onuradunen kopurua izanik	12.776,40 €		

1.5. Erretiro data komenigarriena

Pertsona bakoitzak erretiroa hartzeko dituen aukerak banan-banan aztertu behar dira, bakoitzaren lan-bizitzaren araberakoak baitira aukeratu beharreko erretiro-formula eta pentsioen zenbatekoa.

Edozein zalantzari buruz informazio gehiago nahi izanez gero (eskaera egiteko prozedurak, epeak...), jar zaitez harremanetan **STEILAS**ekin, Klase Pasiboekin (MUFACE) 948 990 510 telefono-zenbakian edo Ogasuneko Klase Pasiboen Unitatearekin 948 203 331 zenbakian.

Ikasturtea bukatzea erabakitzen bada, irailaren 1ean irakasle bat kontratatuko da lanpostua betetzeko. Itxaron nahi ez bada, urteak betetzen dituzun egunean har dezakezu erretiroa edo beste data batean beti ere beteak badituzu.

1.6. Zer gertatzen da hutsik geratzen den lanpostuarekin?

1.6.1. Ikasturtean zehar hartutako erretiroak

- Erretiroa gutxienez 3 hilabete lehenago eskatu arren, departamentuak baja moduan kudeatzen du, eta ez du ordezten zeren eta erretiroa hartuko duen pertsonak lanean jarraitzea erabaki bait dezake.

1.6.2. Ikasturtea bukatu ondoren hartutako erretiroak

- Ikasturtea amaitu eta uda langile aktibo gisa kobratzea erabakitzen dutenek.
- Irailaren 15era arte erretiroa hartzen baduzu, plaza hori ekaineko edo iraileko LET masiboan agertuko da. Lanpostua ikasturte osoko bezala aterako litzateke eta bi pertsona postu berean egongo dira.

1.6.3. Erretiratuek betetzen zituzten egiturazko lanpostuak

- Lanpostuak ez dira erretiroagatik desagertzen plantilla organikotik; plantillan jarraitzen dute, baina lanpostu huts gisa.
- Plazak desagertu egiten dira -1era badaude (erretiroagatik edo lanpostua kentzeagatik / destino berria lekualdatze-lehiaketan).
- Abendura arteko erretiroagatik libre geratzen diren plazak, lekualdatze-lehiaketarako behin betiko lanpostu hutsetan kontuan hartu ohi dira.

1.7. Pentsioaren zenbatekoaren simulagailua

Gizarte Segurantzan eskatu: navarra-ipj@igae.hacienda.gob.es

Dokumentazioa/agiriak

- Jaiotza data.
- Zerbitzu-orria (Nafarroako Gobernuan emandako zerbitzuen ziurtagiria).

Emandako zerbitzuak

- Lan-bizitza, Gizarte Segurantzako beste kotizazio batzuk egiaztatuta izanez gero (Zure lan-bizitzaren txostena. Gizarte Segurantza | Espainiako Gobernua, EB).
- Erretiroa hartzeko gutxi gorabeherako data.
- Seme-alaben kopurua (familia liburua).
- Erretirorako kontuan hartzen diren epeen ziurtagiriak (erditzea, adingabeak zaintzea, etab.).

1.8. PFEZaren atxikipenen kalkulua Nafarroan

Lan etekinen gainean jasandako atxikipenak kalkulatzea

Gure ardurapean dauden ondorengoen kopuruaren arabera atxiki gaitzaten eskatu behar den PFEZaren ehunekoaren gutxi gorabeherako ideia bat egiteko, honako taula hau kontsulta dezakegu:

Atxikipen portzentaje orokorrak											
Urteko etekina eurotan	Seme alaba kopurua eta bestelako ondorengoak										
	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo gehiago
17.000 baino gehiago	2,0	1,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
18.500 baino gehiago	4,0	3,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
19.750 baino gehiago	6,0	5,0	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
21.250 baino gehiago	8,5	7,5	6,5	4,5	2,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
23.250 baino gehiago	11,0	10,0	9,0	7,0	5,0	2,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
25.250 baino gehiago	13,3	12	11,3	8,5	7,5	5,5	3,4	0,5	0,0	0,0	0,0
27.500 baino gehiago	14,6	13,3	12,6	9,9	9,2	7,8	5,8	3,8	0,8	0,0	0,0
30.250 baino gehiago	15,8	14,5	13,7	12,4	10,7	8,9	7,9	5,9	3,9	0,9	0,0
32.250 baino gehiago	17,0	16,0	15,0	13,6	12,5	10,8	10,0	8,0	7,0	5,0	2,0
35.750 baino gehiago	18,1	17,1	16,5	14,7	14,0	13,3	12,2	10,2	9,1	7,1	6,1
41.250 baino gehiago	20,0	19,0	18,3	16,9	16,2	15,5	13,7	12,4	11,3	10,2	9,2
48.000 baino gehiago	22,1	21,5	20,9	18,9	18,3	17,7	16,6	15,6	14,5	13,4	12,3
55.000 baino gehiago	24,1	23,5	23,0	22,0	21,5	20,9	19,8	18,7	17,7	16,6	15,0
62.000 baino gehiago	26,1	25,5	24,5	24,0	23,5	22,9	21,9	21,4	19,8	18,7	17,2

(PFEZri buruzko Foru Araudiaren 71. artikulua, maiatzaren 24ko 174/1999 FD).

Errenta aitorpenerako batez besteko karga-tasaren kalkulua.

Hurrengo eskalako oinarri likidagarri orokorraren kargaren arabera (eskala aplikatzetik ateratzen den kuota oinarri likidagarri orokorrarekin zatitzetik ateratzen den zatidura 100ekin eta bi hamartarrekin biderkatuz).

(LFAren 59. artikulua. 4/2008, ekainaren 2koa, P.F.E.Z.ri buruzko Foru Legearen testu bateginari buruzkoa)

1.9. Helbide interesgarriak

Klase pasiboen kudeaketarako Zuzendaritza Orokorra

Klase pasiboen informazioa:

✆ 900 503 055 (Doako telefonoa)

🕐 Astelehenetik ostiralera 9:00tik 15:00ra

https://clasespasivas.gob.es

Clases.pasivas@sepg.minhap.es

Idatzizko informazioaren zerbitzua:

Dirección General de Costes de Personal y Pensiones Públicas

Avda. del General Perón 38

28020 Madril

MUFACE

MUFACEko zerbitzu zentralak

Paseo de Juan XXIII 26
Moncloa - Aravaca • 28040 Madrid

✆ 912 739 500

www.muface.es

Nafarroako muface ordezkaritza

Paulino Caballero 41 - 1ª solairua

31003 Iruñea

✆ 948 990 510

navarra@muface.es

Gizarte segurantzako diruzaintza nagusiaren egoitza elektronikoa

Bizitza Laborala, kotizazio oinarriak, kotizazio araubideak, etab.

https//sede.seg-social.gob.es

Nafarroako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza orokorra

Oliveto Kondearen etorbidea 7

31003 Iruñea

✆ 948 28 92 00

navarra.administración1.tgss@seg-social.es

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua

Santo Domingo Kalea 8

31001 Iruñea

✆ 848 42 65 00

Klase pasiboen simulazioa	Gizarte Segurantzaren simulazioa
✆ 948 203 331	✆ 915 421 176
Klase pasiboak	Gizarte Segurantza

steilas

2. Klase pasiboak (MUFACE)

2.1. Erretiro arrunta

Kotizatu diren urteak	Oinarri erregulatzailearen portzentajea	A1 taldea		A2 taldea	
		€ urtean	€ hilabetean	€ urtean	€ hilabetean
15	26,92	14.186,05	1.013,29	11.164,78	797,48
16	30,57	16.109,49	1.150,68	12.678,57	905,61
17	34,23	18.038,21	1.288,44	14.196,52	1.014,04
18	37,88	19.961,65	1.425,83	15.710,32	1.122,17
19	41,54	21.890,36	1.563,60	17.228,26	1.230,59
20	45,19	23.813,81	1.700,99	18.742,06	1.338,72
21	48,84	25.737,25	1.838,37	20.255,86	1.446,85
22	52,52	27.676,50	1.976,89	21.782,10	1.555,86
23	56,15	29.589,40	2.113,53	23.287,60	1.663,40
24	59,81	31.518,12	2.251,29	24.805,54	1.771,82
25	63,46	33.441,56	2.388,68	26.319,34	1.879,95
26	67,11	35.365,00	2.526,07	27.833,14	1.988,08
27	70,77	37.293,72	2.663,84	29.351,08	2.096,51
28	74,42	39.217,16	2.801,23	30.864,88	2.204,63
29	78,08	41.145,87	2.938,99	32.382,83	2.313,06
30	81,73	43.069,31	3.076,38	33.896,62	2.421,19
31	85,38	44.992,76	3.213,77	35.410,42	2.529,32
32	89,04	46.921,47	3.351,53	36.928,37	2.637,74
33	92,69	48.844,91	3.488,92	38.442,16	2.745,87
34	96,35	50.773,63	3.626,69	39.960,11	2.854,29
35 ó más	100	52.697,07	3.764,08	41.473,91	2.962,42

2025eko urtearekiko, pentsioak %2,70 igo dira.

Gehienezko pentsioa (47.034,40 €/año, 3.359,60 €/mes). Gehienezko kopurua gainditzen dute.

2.2. Borondatezko erretiro aurreratua

Betebeharrekoak:

- 60 urte edo gehiago izatea.
- Gutxienez 30 urteko zerbitzua izatea, azken 5 urteak klase pasiboetan.
- Gehienezko pentsioa jasotzeko, Irakasleen Kidegoan egonez gero gutxienez 33 urte behar dira, eta Bigarren Hezkuntzako kidegoan egonez gero, 35 urte.
- 60 urtetik aurrera langabezia-aldiak ere zenbatzen dira, beti ere 30 urte kotizatuta izanez gero.

2.3. Adinagatiko nahitaezko erretiroa (65 urtetik gora)

Betebeharrekoak:

- Ofizioz aitortzen da 65 urte betetzean (nahiz eta ikasturtea amaitu daitekeen).
- 70 urtera arte luzatu ahal izango da, baldin eta pentsio osoa jasotzeko eskubidea izateko bezain beste kotizatu ez bada (gehienez ere 35 urtez irakasleen kidegoan lan egitearen baliokidea den pentsioa) edo gutxieneko 15 urte kotizatu ez bada.
- Erretiratzen den adina indarrean dagoen ohiko adina baino handiagoa bada eta gutxienekoa kotizatu bada, ehuneko gehigarri bat aitortzen da (25 urte kotizatu bitarteko urte bakoitzeko % 2, 25 eta 37 urte bitarteko urte bakoitzeko % 2,76 eta 37 urte baino gehiagoko urte bakoitzeko % 4).
- Erretiroko diru-laguntza edo ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa eska daiteke, maila horretako oinarrizko ordainsarien hileko arrunt baten zenbateko osoaren erdia. Erretiroaren egunetik 5 urteko epean eska daiteke.

2.4. Zerbitzu aktiboa luzatzea (70 urtera arte)

Funtzionarioei erretiro-adina (65 urte) gainditu ondoren lanean jarraitzeko aukera ematen die, baldin eta adin horretara iristean, pentsioa jasotzeko nahitaezko 15 urteak bete ez badira. Edo, pentsioa jasotzeko eskubidea izanda ere, pentsio osoa jasotzeko kotizazio-urteetara iritsi ez badira.

Kasu horietan, zerbitzu aktiboa luzatu ahal izango da beharrezko epea betetzen den egunera arte. Luzapenaren gehieneko iraupena 5 urtekoa izango da, beste 5 urtez luzatzeko aukerarekin. Nolanahi ere, ezin izango da 70 urtetik harago luzatu.

Zerbitzu aktiboan ematen den urte bakoitzeko, % 4 igoko da erretiro-pentsioa.

Interesdunak Hezkuntza Departamentuan aurkeztu behar du eskaera. Honek ebaluatuko du eta txosten arrazoitu bat emanen du luzapena eman edo ukatzeari buruz, antolaketa eta funtzio arrazoiak kontuan hartuta.

2.5. Ezintasunagatiko erretiroa

2.5.1. Partziala

- Ohiko lanbiderako errendimendu normala% 33 baino gutxiago ez izatea.
- Oinarrizko zereginak egin daitezke eta alta emanda zaude edo antzeko egoeran.
- Aldi baterako ezintasuna iraungi den egunaren aurreko 10 urteetan, gutxienez 1.800 egun kotizatu izan behar dira.

2.5.2. Osoa / Totala

- Gutxienez %33ko elbarritasuna.
- Bere kidegoko zereginak betetzeko ezgaitasuna.
- Erretiro-pentsio arrunta bezala kalkulatzen da, baina, ordura arte egindako zerbitzuez gain, erretiro-adina bete arte falta zaizkion urte osoak hartzen dira kontuan.

- **Lanean 20 urte baino gehiago eman badira:** zerbitzu-urte kopuruaren eta gorputza arautzen duen hartzekoaren arabera kalkulatzen da.
- **Zerbitzuan 20 urte baino gutxiago izanez gero:** %5 murriztuko da 20 urte bete arte falta den zerbitzu urte oso bakoitzeko.
- **15 urte edo gutxiago kotizatuz gero:** gehienez %25eko murrizketa dago.
- Erretiro-adinik izan ez eta pentsioa aitortu ondoren gaixotasuna edo lesioak larriagotzen badira eta lanbide oro betetzeko ezgaitzen baldin bada, pentsioaren zenbatekoa dagokionaren %100eraino handitzea eska daiteke, aurreko murrizpenak kontuan hartu gabe.
- Erretiroko diru-laguntza edo ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa eska daiteke, maila horretako oinarrizko ordainsarien hileko arrunt baten zenbateko osoaren erdia. Erretiroaren egunetik 5 urteko epean eska daiteke.

2.5.3. Erabatekoa / Absolutua

- Gutxienez,% 65eko ezgaitasuna.
- Edozein lanbidetan aritzeko ezgaitasuna.
- Zerbitzuko urte kopuruaren eta kidegoa arautzen duen hartzekoaren arabera kalkulatzen da.
- Ez du zergarik ordaintzen eta atxikipenetik salbuetsita dago.

2.5.4. Ezintasun handia

- "Oinarrizko behar fisikoetarako" laguntza behar denean.
- Zerbitzu-urteen eta langile-taldea arautzen duen hartzekoaren arabera kalkulatzen da, eta % 50eko hileko osagarria gehitzen zaio.
- Ez du zergarik ordaintzen eta atxikipenetik salbuetsita dago.

Nafarroako Gobernuaren ezintasunagatiko erretiro poliza

Nafarroako Gobernuak ezintasunagatiko erretiro poliza harpidetuta dauka, eta poliza horrek kalte-ordain hauek aurreikusten ditu:

- Ezgaitasun osoa: 25.090,16 €
- Erabateko ezintasuna (absolutua): 31.000 €
- Ezintasun handia: 62.000 €.

65 urte bete ez badira, ezintasun-egoerak berrikusteko aukera dago. Ezintasun iraunkorreko pentsioei 'erretiro-pentsio' deitzen zaie 65 urte betetzean.

Eskaera:

- Eskaera Hezkuntza departamentuan aurkeztu, dagokion agiri medikoak eramanez.
- 18 hilabeteko bajaren ondoren, Nafarroako GSINeko Ezintasuna Baloratzeko Taldeak aldi baterako ezintasuna luzatu, alta eman edo ezintasun iraunkorra deklaratzen du.
- Erabakia errekurritu daiteke eta bajan jarraitu.
- Ezintasun iraunkorra onartzen denean, berriro lanera itzul daiteke, errehabilitazioa egiten bada.

3. Gizarte Segurantza

2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako funtzionarioak eta kontratatutako pertsonak

3.1. Erretiro Arrunta

Betebeharrekoak

Adina eta kotizazioa	65 urterekin erretiratzeko kotizatutako denbora	Erretiratzeko adin orokorra
2026	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 10 hilabete
2027tik aurrera	38 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	67 urte

- 65 urterekin, 38 urte eta 3 hilabete kotizatu badira; edo 66 urte eta 6 hilabeterekin, 38 urte eta 8 hilabete baino gutxiago kotizatu badira. 2013-01 01a baino lehenagoko legeria aplikatu behar zaienek 65 urte izaten jarraituko dute (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 4. xedapen iragankorra).

- Gutxienez 15 urteko kotizazioa; horietatik 2 urte eskubidea sortu aurreko azken 15 urteen barruan egon behar dira. 65 urterekin erretiroa hartzeko gutxieneko kotizaziora (15 urte) iristen ez bada, erretiro-adina igo egiten da.

- Kotizatu den oinarri arautzailea aplikatzen da beti, baina 2026an 15 urtez kotizatu dutenek % 50 kobratuko dute, eta hilabete gehigarri bakoitzeko, taula honetan agertzen denaren arabera:

Aplikazio-aldia	Lehen 15 urteak		Urte gehigarriak				Guztira	
	Urteak	%	Hilabete gehigarriak	Koefizientea	%	Urteak	Urteak	%
2026an	15	50	1etik 49ra gainerako 209ak	0,21 0,19	10,29 39,71			
	15	50	**Guztira 258 hilabete**		**50,00**	**21,5**	**36,5**	**100**
2027 eta hurrengoak	15	50	1etik 248ra gainerako 16ak	0,19 0,18	47,12 2,88			
	15	50	**Guztira 264 hilabete**		**50,00**	**22**	**37**	**100**

- 2026an, lan egindako azken 304 hilabeteetatik (25 urte eta 4 hilabete) 302 hilabeterik onenak aintzat hartuko dira. Hortik aurrera, urtero 4 hilabete gehiago zenbatzen dira baina 2 hilabete gehiago kentzen dira, adibidez, 2030ean 300 hilabete kontutan hartuko dira eta 10 okerrenak kenduko dira.

- Gizarte Segurantzaren urriaren 30eko 8/2015 Lege Orokorraren berrogeigarren xedapen iragankorraren arabera, 2044ra arte azken 25 urte eta 2 hilabete kotizatuetako edo azken 29 urteetako aukerarik onuragarriena hautatu ahal izango da (27 urte onenak kontuan hartuta). 2044tik aurrera, 25 urte kotizatuta kalkulatuko da beti, eta 2 urte txarrenak baztertuko dira.

Eskaera:

- Ofizioz aitortzen da 65 urterekin.
- **Funtzionarioentzat:** 65 urterekin gehieneko kotizazioa lortzen ez bada eta lanean jarraitu nahi bada, jakinarazi egin behar da.
- **Langile interinoentzat:** zerrendetan egon daiteke, baldin eta zentro, espezialitate eta hizkuntza berean jarraitzeko baldintzak betetzen badituzte.

steilas

3.2. Borondatezko erretiro aurreratua

Betebeharrekoak

- Erretiro aurreratua hartzeko hainbat aukera daude, baina gehienez 63 urterekin eska daiteke, betiere gutxienez 38 urte eta 3 hilabete kotizatu badira. Denbora gutxiago kotizatu bada, 64 urte eta 8 hilabetera arte itxaron behar da.
- 60 urtetik aurrera langabezia-aldiak ere kontutan hartzen dira, beti ere 30 urte kotizatzen badira.
- Ondorioz, penalizazio-koefiziente batzuk aplikatzen zaizkio pentsioaren zenbatekoari. Penalizazio-ehuneko hori % 21eko gehieneko murrizketaren eta % 2,81eko gutxieneko murrizketaren artekoa izan daiteke, aurreratutako hilabeteen arabera beti ere eta taula honetan agertzen denaren araberakoa:

	Kotizatutako aldia			
	< 38 urte eta 6 hilabete	≥ 38 urte eta 6 hilabete eta < a 41 urte eta 6 hilabete	≥ 41 urte eta 6 hilabete eta < 44 urte eta 6 hilabete	≥ 44 urte eta 6 hilabete
Zenbat hilabete aurreratzen da jubilazioa	Murrizketaren ehunekoa	Murrizketaren ehunekoa	Murrizketaren ehunekoa	Murrizketaren ehunekoa
24	21,00	19,00	17,00	13,00
23	17,60	16,50	15,00	12,00
22	14,67	14,00	13,33	11,00
21	12,57	12,00	11,43	10,00
20	11,00	10,50	10,00	9,20
19	9,78	9,33	8,89	8,40
18	8,80	8,40	8,00	7,60
17	8,00	7,64	7,27	6,91
16	7,33	7,00	6,67	6,33
15	6,77	6,46	6,15	5,85
14	6,29	6,00	5,71	5,43
13	5,87	5,60	5,33	5,07
12	5,50	5,25	5,00	4,75
11	5,18	4,94	4,71	4,47
10	4,89	4,67	4,44	4,22
9	4,63	4,42	4,21	4,00
8	4,40	4,20	4,00	3,80
7	4,19	4,00	3,81	3,62
6	4,00	3,82	3,64	3,45
5	3,83	3,65	3,48	3,30
4	3,67	3,50	3,33	3,17
3	3,52	3,36	3,20	3,04
2	3,38	3,23	3,08	2,92
1	3,26	3,11	2,96	2,81

- Erretiro aurreratua hartzen den kasu guztietan, koefiziente murriztaileak aplikatu ondoren, ateratzen den pentsioak ezin du gainditu gehieneko pentsioa ken aurreratzen den hilabete bakoitzeko koefiziente bat. 2022tik aurrera, ehuneko horiek ere handitu egingo dira, baina pixkanaka, urteetan zehar, eta erreformak bermatzen du tasak ezartzean (10 urtean) lortzen den pentsioa ezin dela izan aurreko araudiarekin lortuko litzatekeena baino txikiagoa (aurrerapeneko hiruhileko bakoitzeko 0,50), pentsiorik onena bermatzen dela muga gainditzen den kasu horietan.

Hala, 38,5 urtetik beheitiko aldi kotizatuetarako, eta aurrerakinaren hilabeteen arabera, honako zigor-portzentaje hauek aplikatuko dira:

Aurreratutako hilabeteak	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032	2033
24	5,70	7,40	9,10	10,80	12,50	14,20	15,90	17,60	19,30	21,00
23	5,36	6,72	8,08	9,44	10,80	12,16	13,52	14,88	16,24	17,60
22	5,07	6,13	7,20	8,27	9,34	10,40	11,47	12,54	13,60	14,67
21	4,41	5,31	6,22	7,13	8,04	8,94	9,85	10,76	11,66	12,57
20	4,25	5,00	5,75	6,50	7,25	8	8,75	9,50	10,25	11,00
19	4,13	4,76	5,38	6,01	6,64	7,27	7,90	8,52	9,15	9,78
18	3,58	4,16	4,74	5,32	5,90	6,48	7,06	7,64	8,22	8,80
17	3,50	4,00	4,50	5,00	5,50	6,00	6,50	7,00	7,50	8,00
16	3,43	3,87	4,30	4,73	5,17	5,60	6,03	6,46	6,90	7,33
15	2,93	3,35	3,78	4,21	4,64	5,06	5,49	5,92	6,34	6,77
14	2,88	3,26	3,64	4,02	4,40	4,77	5,15	5,53	5,91	6,29
13	2,84	3,17	3,51	3,85	4,16	4,52	4,86	5,20	5,53	5,87
12	2,35	2,70	3,05	3,40	3,75	4,10	4,45	4,80	5,15	5,50
11	2,32	2,64	2,95	3,27	3,59	3,91	4,23	4,54	4,86	5,18
10	2,29	2,58	2,87	3,16	3,45	3,73	4,02	4,31	4,60	4,89
9	1,81	2,13	2,44	2,75	3,07	3,38	3,69	4,00	4,32	4,63
8	1,79	2,08	2,37	2,66	2,95	3,24	3,53	3,82	4,11	4,40
7	1,77	2,04	2,31	2,58	2,85	3,11	3,38	3,65	3,92	4,19
6	1,30	1,60	1,90	2,20	2,50	2,80	3,10	3,40	3,70	4,00
5	1,28	1,57	1,85	2,13	2,42	2,70	2,98	3,26	3,55	3,83
4	1,27	1,53	1,80	2,07	2,34	2,60	2,87	3,14	3,40	3,67
3	0,80	1,10	1,41	1,71	2,01	2,31	2,61	2,92	3,22	3,52
2	0,79	1,08	1,36	1,65	1,94	2,23	2,52	2,80	3,09	3,38
1	0,78	1,05	1,33	1,60	1,88	2,16	2,43	2,71	2,98	3,26

38,5 urteko edo gehiagoko eta 41,5 urte baino gutxiagoko, 41,5 urteko edo gehiagoko eta 44,5 urte baino gutxiagoko eta 44,5 urteko edo gehiagoko kotizazio-aldietarako, komeni da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren erreferentziako taulak berrikustea (34. xedapen iragankorra).

steilas

3.3. Borondatezko erretiro aurreratua klase pasiboetan sartzeagatik

60 urte eta 30 urteko zerbitzualdia duten irakasle funtzionarioak Estatuko Klase Pasiboetan sar daitezke, baldin eta:

1) 1990ean atxiki zen Nafarroako Gobernuko funtzionario izatera, Estatuaren zerbitzu-transferentzia bidez.

2) Edozein administrazio publikoren mendeko ikastetxeetako funtzionario gisa sartu da hezkuntza-administrazioen mendeko ikastetxeen sareetan, 2009ko ekainaren 3a baino lehen.

3) 2011-01 01a baino lehen Klase Pasiboenaz bestelako Gizarte Segurantzako erregimenetan sartu da.

   - Erregistro Orokor Elektroniko bidez, gutxienez 3 hilabete lehenago adierazi behar da erretiro-instantzian Gizarte Segurantzakoa dela eta Klase Pasiboen bidezko erretiroa nahi dela (158. Xedapen Gehigarria, 6/2018 Legea, uztailaren 3koa. Nafarroako irakasleen kidegoetako erretiroa).

   - Erretiro-adin arruntera arte falta den hiruhileko bakoitzeko koefiziente murriztaileekin egindako kotizazio efektiboaren kalkulutik abiatuta ezartzen da (kotizatutako urteen arabera, % 1 ,625etik % 2ra).

3.4. Zerbitzu aktiboa 65 urtetik haratago luzatzea

Derrigorrezko erretiroa hartzeko egunean edo nahitaezko erretiroa hartu beharreko ikasturtea amaitzean, ikasturte osoko premia bat bete baina pentsio osorako denbora-tartea bete gabe daukanak, ikasturteka 70 urte bete bitarte kontratatua izan ahalko da. Ikasturte osoko premia bat bete beharko du, kidego, espezialitate, hizkuntza eta ikastetxe berean. (2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 16/2025 Foru Legea).

4. Pentsioak edo kotizatutako aldiak gehitzen dituzten kasuak

4.1. Genero-arrakala murrizteko osagarria

2021eko otsailaren 4az geroztik, osagarri hori aplikatzen zaie ezintasunagatiko edo alarguntasunagatiko nahitaezko pentsioei, eta gurasoei ordaintzen zaie, genero-arrakalak oro har emakumeen pentsioen zenbatekoan duen eragina dela-eta ordaindu zaielako. Senideak zaintzeko eszedentziako lehenengo 3 urteak lanaldi osoan kotizatutakotzat joko dira.

Gurasoek osagarria jasotzeko eskubidea izango dute seme-alabak elkarrekin izan dituen beste gurasoaren heriotzagatik (seme-alabek zurztasun-pentsioa jasotzeko eskubidea badute) edo jaiotza edo adopzioa dela-eta bere lanbide-karrera kaltetua izan delako.

Pentsioen muga ez da muga bat, baina jaso beharreko zenbatekoa seme-alaba bakoitzeko hileroko zenbatekoa halako lau da (36,90 € hileko bakoitzeko 2026an). Urtero zenbateko bat jasotzeko eskubidea izango da, eta zenbateko hori kalkulatzeko, muga horren zenbatekoari pentsioaren zenbatekoa zehazteko erabili ez den ehuneko gehigarria aplikatuko zaio, gehienez ere 52.697,06 euro gordin urtean, 14 ordainsaritan.

Gizarte Segurantzaren kasuan ez da bereizten derrigorrezko eta borondatezko erretiroaren artean. Baina Klase Pasiboetan bai, derrigorrezko erretiroaren kasuan bakarrik jasotzen baita. Seme-alaba bakoitzak osagarri bakarra jasotzeko eskubidea ematen du, eta bigarren gurasoari aitortuz gero, aurretik aitortutakoa bertan behera geratzen da.

4.2. Lanaldi partzialeko eta lanaldi osoko lanak parekatzea, kotizazio-aldiak zenbatzeko

2023ko urriaren 1etik aurrera, lanaldi partzialean lan egindako egunak egun oso gisa zenbatuko dira Gizarte Segurantzaren prestazioetarako kotizazioen ondorioetarako (erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza eta biziraupena, aldi baterako ezintasuna eta adingabearen jaiotza/zaintza), eta aurreko partzialtasun-koefizientea kenduko da.

Lan egindako egun bakoitza kotizatutako egun bat bezala kontatzen da, orduak alde batera utzita, pentsioa eskuratzeko onurak jasoz (GSLO 247. art); lehen, eguneko 2 ordu 0,25 egun kotizaturen baliokideak ziren (4 egun behar ziren 1 gehitzeko). Orain, eguneko 2 ordu kotizazio-egun oso baten baliokide dira.

Etorkizuneko prestazioak kalkulatzeko 2023ko urriaren 1aren aurretik kotizatutako aldiei aplikatzen zaie, baina ez dira berrikusiko data hori baino lehenagoko gertaera arrazoiak.

LAEBn (Langile Autonomoen Erregimen Berezia) eta Erregimen Orokorrean aldi berean lan eginez gero, egunak ez dira bikoiztuko, baina langilearen alde kontutan hartuko dira.

Lan bizitzaren txostenean kotizatutako egun gutxiago agertzen dira oraindik, kotizazioa ez delako aldatzen eta lan egindako orduen arabera gauzatzen delako. Hau da, txosten honek benetan lan egindako lanaldia islatzen du, beste egoera batzuetan eragina izan baitezake. Parekatze horrek gabezia-aldiari bakarrik eragiten dio (prestazioa jasotzeko gutxieneko kotizazio-aldia).

Aldiz, Zure Gizarte Segurantza atarira sartuz gero, parekatze hori kontuan hartuta kotizatutako egunak ikus daitezke “Zure kotizazioak ikusi” atalean. Erretiroa hartzeko zenbat denbora falta den ikusi ahal izango da, eta erretiroaren simulazio bat egin, une horretara arte dituzun lan-datuen arabera.

Zure Gizarte Segurantza ataria

4.3. 5 urtera arteko kotizazio-igoera, karrera profesionala eteteagatik, adingabea zaintzeko

Gizarte Segurantzak erretirorako seme-alabak zaintzeko 5 urte (1.825 egun) arteko kotizazio fiktizioa gehitzeko aukera ematen die emakumeei, amatasunaren ostean lan-jarduerarik gabeko aldiak onartuz. Erditze bakoitzeko 112 egun pilatzen dira, eta seme-alaba bakoitzeko 270 egun gehigarri ere bai lan-ibilbidea eten bazen; Erregimen Orokorrean eta Autonomoetan aplika daiteke.

Hala, gutxieneko oinarriari kotizatutako egunak gehitzen zaizkio, erretiro-baldintzak lortzen eta pentsioaren zenbatekoa handitzen laguntzeko, betiere jaiotza, adopzio edo harreragatik seme-alabak zaintzeko lan-jarduera gutxienez 12 hilabetez eten edo murriztu bada.

Onura gurasoetako bati aitortzen zaio, eta gatazka kasuan amari ematen zaio. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean (GSIN) izapidetzen da, bai aurrez aurre, hitzordua eskatuta, bai egoitza elektronikoan, ziurtagiri digitalarekin.

Seme-alabak edo etxean hartutako adingabeak zaintzeagatiko onurak aitortzeko baimena

4.4. Antzinako prestakuntza-praktikengatiko kotizazioa

Prestakuntza praktika zaharretatik erretiroa hartzeko ezarritako gutxieneko denbora zenbatzeko 2028ko abenduaren 31ra arte Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin hitzarmen berezia sinatzea eska daiteke. Erretiroari begira, gehienez ere 5 urte erreskatatu daitezke, eta GSDOan sartu beharreko zenbatekoak 40 eta 140 euro/hilabeteko dira, gutxi gorabehera, 1980 eta 2006 artean egindako praktikaldietan kotizatutako hilabete bakoitzeko. Honako hauetan egindako praktikak onartzen dira:

- Titulazio ofiziala lortzeko unibertsitateko ikasle ohiak: titulu propioa, gradua edo baliokidea, masterra edo doktoregoa.
- Lanbide Heziketako ikasleak, lan-izaerarik izan ez badute (LH trinkoko erregimenean emandakoak).
- Hezkuntza-sistemako goi-mailako arte-irakaskuntzetako, arte-irakaskuntza profesionaletako eta kirol-irakaskuntzetako ikasleak.
- Ikerketa-izaerako prestakuntza-programetan parte hartu dutenak, bai estatuan zein atzerrian.

Hitzarmen hau ezin izango dute sinatu erretiroko edo ezintasun iraunkorreko pentsiodunek, artikulu honetako kasuetan izan ezik. TAS/2865/2003 Aginduaren 2.2. art.

Prestakuntza praktika zaharrengatik kotizazio urteak berreskuratzea eskatzeko gida

4.5. Sortutako eta gozatu gabeko oporrei dagozkien kotizazioak

Lan-harremana opor osoak hartu gabe amaitzen bada, soldataren likidazio osagarria jasotzen da, gozatu gabeko oporren zati proportzionalarekin batera. Opor horiek kontratua amaitu den hilabeteari kotizatu behar zaizkio (PJC/178/2025 Agindua, otsailaren 25ekoa, 30. art).

Gozatu gabeko oporrak edo pilatutako negatiboaren guztizkoa estaltzen duten ordaindu gabeko beste kontu batzuk gorabehera, nominan negatiboa sortzen bada, onuradunari ordainketa-gutun bat bidaliko zaio sortutako negatiboa ordain dezan (otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua).

4.6. Frankismoko Emakumearen Gizarte Zerbitzua, Soldadutza eta Ordezko Gizarte Zerbitzua

Gizarte Segurantzan kotizatutako alditzat zenbatuko dira, erretiroa hartu ahal izateko ezarritako gutxieneko denboraren ondorioetarako, betiere aurretik eskatuta eta baldin eta lanean hasi aurretik funtzionarioa izan bada.

5. Norberaren kanpoko arrazoiengatiko pentsioak

5.1. Alarguntasun-pentsioak

- Erretiroa eta hildako ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen zatia kobratuko dira, gehieneko mugara iritsi arte. Hildakoari dagokionez prestazioaren onuradun izan daitezke egoera horietakoren batean dauden pertsonak:

  - Dibortzioa.
  - Bereizketa.
  - Ezkontzaren deuseztasuna.
  - Izatezko bikotearen amaiera.

- Hildakoari legokiokeen pentsioaren %50 edo pentsioaren %58 kobratzen da. 65 urte baino gehiago izanez gero, ez da beste pentsiorik kobratzen eta ez da diru-sarrera gehiagorik izaten.

- Amatasunagatiko osagarria ere jaso dezakete.

Hildakoarekin zerikusia duten betebeharrekoak

- Senidea lanetik kanpoko istripu baten (lanetik kanpoko lesioen ondorioz), lan-istripu baten (baina MUTUA Navarraren bidez izapidetzen da), gaixotasun profesional baten (bere lanak eragindakoa) edo gaixotasun arrunt baten (lanarekin zerikusirik ez duena) ondorioz hil zen, eta egoera hauetako batean zegoen:

  - Gizarte Segurantzan alta emanda zegoen eta gutxienez 500 egun kotizatu zituen hil aurreko 5 urteetan edo kotizatzeko betebeharra amaitu zuen unean.
  - Ez zegoen alta emanda baina gutxienez 15 urtez kotizatu zuen bere lan-bizitzan zehar.

Onuradun izateko betebeharrekoak

Hildakoarekiko familia-loturak ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena izan behar du, eta, hura hil ondoren, senar-emazte edo izatezko bikotekide berria eratu ez izana. Gainera, beste egoera batzuetan ere eska daiteke laguntza: dibortziatuta edo bananduta dauden pertsonak, ezkontza deuseztatuak dituztenak edo genero-indarkeria jasaten dutenak.

5.2. Zurztasun-pentsioa

- 21 urtetik beherako seme-alabentzat, edo 24 urtetik beherakoentzat, ikasten jarraitzen badute, edo 21 urtetik gorakoentzat, ezintasun iraunkorra edo erabatekoa badute.

- 25 urte edo gehiago izatea eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino diru-sarrera handiagoak (16.576€ urtean) jasotzen ez dituen lanik ez egitea.

- Oinarri arautzaileari % 25 aplikatzen zaio adingabe bakoitzeko adingabe bat baino gehiago edukiz gero, edo % 10 adingabe bat baino gehiago edukiz gero, eta % 15era igotzen da onuradun guztien artean, zati berdinetan banatuta.

- Kasu honetan, pentsioak %15 bakar batean igoko dira, onuradun guztien artean erdibana banatuta.

Betebeharrekoak

- Senidea lanetik kanpoko istripu baten (lanetik kanpoko lesioen ondorioz), lan-istripu baten (baina MUTUA Navarraren bidez izapidetzen da), gaixotasun profesional baten (bere lanak eragindakoa) edo gaixotasun arrunt baten (lanarekin zerikusirik ez duena) ondorioz hil zen, eta egoera hauetako batean zegoen:
  - Gizarte Segurantzan alta emanda zegoen.
  - Ez zegoen alta emanda baina gutxienez 15 urtez kotizatu zuen bere lan-bizitzan zehar.

Alarguntasun eta zurztasun pentsioak batera eska daitezke

5.3. Gurasoen aldeko pentsioak

- Hil den pertsona batekin bizi ziren eta ekonomikoki haren mende zeuden senideak:
  - Amonak eta amak.
  - Aitonak eta aitak.
  - Bilobak.
  - Anai-arrebak.
  - 45 urtetik gorako seme-alabak, ezkongabeak, alargunak, epai bidez bananduak edo dibortziatuak, hildakoa zaintzen denbora luzez aritu direla egiaztatzen badute.

Hildakoarekin zerikusia duten betebeharrekoak

- Senidea lanetik kanpoko istripu baten (lanetik kanpoko lesioen ondorioz), lan-istripu baten (baina MUTUA Navarraren bidez izapidetzen da), gaixotasun profesional baten (bere lanak eragindakoa) edo gaixotasun arrunt baten (lanarekin zerikusirik ez duena) ondorioz hil zen, eta egoera hauetako batean zegoen:
  - Gizarte Segurantzan alta emanda zegoen eta gutxienez 500 egun kotizatu zituen hil aurreko 5 urteetan edo kotizatzeko betebeharra amaitu zuen unean.
  - Ez zegoen alta emanda baina gutxienez 15 urtez kotizatu zuen bere lan-bizitzan zehar.

Onuradunen betebeharrekoak

- Hil aurreko 2 urteetan, gutxienez, hildako pertsonaren bizikide izatea eta ekonomikoki haren mende egotea.
- Pentsio publikoa jasotzeko eskubiderik ez izatea, eta urteko diru-sarrerak lanbidearteko gutxieneko soldata adinakoak edo txikiagoak izatea (urtean 16.576 € baino gutxiago).
- Elikagaiak emateko betebeharra eta aukera duen seniderik ez izatea.
- Gainera, beste baldintza batzuk ere badaude, hildako pertsonarekin izan duzun familia-loturaren arabera.

5.4. Kotizatu gabekoen pentsioak eta nominak

Bizitzeko baliabide nahikorik ez duten pertsonentzat, baita Gizarte Segurantzan inoiz kotizatu ez dutenentzat edo kontribuzio-prestazioak eskatu ahal izateko behar adina denbora kotizatu ez dutenentzat ere.

Kotizazio gabeko pentsioen urteko zenbatekoa urtero ezartzen da Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean. Horiek onartu bitartean, gobernuak %11,4ko igoera adostu zuen, gutxieneko pentsioen zenbatekoaren eta pobreziaren atalasearen artean dagoen arrakala murrizteko. Oro har, 8.803,20 eurokoa izango da 2026rako, erretiro- eta baliaezintasun-pentsioetarako.

Pentsiodun bakoitzaren zenbatekoa, zenbateko oso hori eta bizikidetzako unitate ekonomiko berean dauden kotizatu gabekoen pentsioen onuradunen kopurua oinarri hartuta zehazten da.

Senideekin bizi bagara, bizikidetzako unitate ekonomikoko kide guztien urteko errenten edo diru-sarreren baturak zenbateko jakin batzuk baino txikiagoak izan behar du.

5.5. Ezohiko pentsioa

Istripu, lan-gaixotasun edo ekintza terroristaren ondoriozko ezintasunaren kasuan. Zerbitzurako ezgaitasuna bezala kalkulatzen da, baina hartzeko erregulatzaileak 2 aldiz biderkatuz.

6. Erretiro-pentsioak, lorpen bat eta gudu-zaldi bat

Pentsio publikoak direla eta, langileen behar ekonomikoak asetzea izan da lorpen sozial garrantzitsu eta baloratuenetako bat.

Egungo sistemaren ustezko ahultasunak murrizketak eta eskakizun handiagoak ekarri ditu kotizazioetan (PSOE-CCOO-UGT-CEOE CEPYME akordioa 2011n). Gainera, sistema publikoaren izen ona zikintzeko kanpainek eta estaldura pribatuetarako laguntza fiskalak aurreikuspen pribatuko sistemak sustatzeko balio dute, nahiz eta horietako askok defizita izan eta ezkutuan eduki, eta horietako gehienek letra txikia izan. Sistema horiek batez ere enpresari handiei interesatzen zaizkie, kotizazio soziala murrizten baitute, eta baliabide horiek kudeatu nahi dituzten bankuei.

Pentsio publikoak solidarioak dira: jaso beharreko minimoak eta maximoak daude, eta, beraz, aberastasuna birbanatzeko funtzioa dute. Bere aurkakoek pentsio pribatuak babesten dituzte, kotizatutakoaren eta pentsioaren artean proportzionaltasun zuzena ezarriz.

Lan partzialaren eta/edo etenaren gorakadarekin, sektore ugari sistema pribatista horietatik kanpo geratzen dira praktikan.

Horregatik guztiagatik, lan egin ondoren pertsonen ongizatea eskubide bat da, ez merkantzia bat, eta hori defendatzea zerbitzu publikoen defentsarekin batera joan behar da, oro har.

Gainera, erretiro-adina igotzeak pentsio-aseguru pribatuak sustatzeko asmo berari eusten dio; kasu honetan, baliabide publikoen kudeaketa txarrean oinarritzen da, diru publikoaren ehuneko handiena zorrak ordaintzeko edo zalantzazko etika eta moraltasuna duten beste gai batzuetarako erabiltzen baita.

Diru-kutxa publikoen lapurreta sistematiko honen aurrean ez gara geldirik geratuko, eta ez dugu onartuko, guztion dirua kudeatzeko beste modu bat posible baita.